


2012.ean emigrazio-saldoa positiboa da Euskal AEn, baina %34 murriztu da

Hamahiru urtez saldo positiboekin, eta aurreneko aldiz 24 urtetan gainerako erkidegoekiko emigrazio-saldoa handiagoa da atzerrikoarekikoa baino

Eustaten datuen arabera, 2012. urtean Euskal AEra etorritakoak joandakoak baino 9.949 gehiago izan ziren; saldoa, berriz ere, positiboa. Emigrazio-saldoa positiboa duen hamahirugarren urtea da; 2011ren aldean %34 murriztu da, 14.986tik 9.949ra.

Bizkaian 4.867 pertsona gehiago; kopuru absolutuetan emigrazio-saldorik altuena, eta 2011 urtekoaren aldean %42 gutxiago. Arabak 1.773 pertsona irabazi ditu, aurreko urtean baino %52 gutxiago. Gipuzkoan (+3.309) saldo positiboa aurreko urtekoa baino %12 handiagoa da. Gasteizen eta Bilbon positiboak dira saldoak: 1.705 eta 1.390; Donostian, negatiboa, 93 pertsona.

1. grafikoa.- Migrazio-saldoaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko migrazio-mugimenduen estatistika (MME)

Beste erkidegoekiko, 2012an, saldo positiboa dugu, 5.266 pertsona; alegia, gehiago dira Euskal AEra beste erkidegoetatik etorriak hemendik haietara joandakoak baino. Eustatek estatistika hau egiten duenetik aurreneko aldiz, beste erkidegoekiko saldoa (+ 5.266), atzerriarekikoa (+4.683) baino handiagoa da; izan ere, atzerritarrak, 2011ren aldean %46 gutxitu dira.

Euskal biztanleen %8,9k bizileku aldaketaren bat egin du 2012. urtean zehar. Mugimendu hori %74an Euskal AE barruan izan da, eta gainerako kasuetan erkidegotik kanporakoa.

Euskal AEn ohiko etxebizitza 194.969 aldiz aldatu da; horien artean, 96.092 udalerritik irten gabe. Erkidego barruko mugimenduak, hau da, bai jatorria, bai helmuga Euskal AEko udalerrietan dituzten mugimenduak 48.608 izan dira. Era berean, kanpoko edo erkidegoaz kanpoko 30.109 immigrazio gertatu dira. Jatorria gure erkidegoaz kanpoko udalerrri batean eta helmuga Euskal AEn duten mugimenduak dira horiek. Haietatik, 8.957 atzerritik. Azkenik, kanpoko edo erkidegoaz kanpoko 20.160 emigrazio gertatu dira. Jatorria gure autonomia, erkidegoko udalerrri batean eta helmuga gure erkidegotik kanpora duten mugimenduak dira horiek. 4.274ren norakoa atzerria izan zen, 2011n baino %6 gehiago.

1. Taula. Migrazio-mugimenduen eta saldoen bilakaera. Euskal AE

Urtea	Emigrazioak		Immigrazioak		Migrazio saldoa
	Guztira	Aldakuntza Indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza Indizea (1988=100)	Guztira
1988	18.103	100	8.014	100	-10.089
1992	13.668	76	9.006	112	-4.662
1995	16.130	89	11.316	141	-4.814
1999	17.291	96	16.103	201	-1.188
2000	17.462	96	20.022	250	2.560
2001	18.696	103	25.775	322	7.079
2002	19.730	109	25.967	324	6.237
2003	22.216	123	28.467	355	6.251
2004	21.304	118	30.328	378	9.024
2005	20.672	114	33.993	424	13.321
2006	22.689	125	37.147	464	14.458
2007	23.669	131	41.361	516	17.692
2008	22.389	124	39.190	489	16.801
2009	21.232	117	34.486	430	13.254
2010	21.206	117	34.234	427	13.028
2011	21.380	118	36.366	454	14.986
2012	20.160	111	30.109	376	9.949

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko migrazio-mugimenduen estatistika (MME)

Euskal mugikortasun geografikoa urria da gainerako erkidegoetakoarekin alderatuz gero

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasunari dagokionez, 2012. urtean Euskal AEko mila biztanletik 23 mugitu dira (%26,9 Araban; %23,1 Bizkaian eta %21,1 Gipuzkoan); alabaina, mugikortasun hori gainerako erkidegoetakoarekin erkatuta txiki samarra da, azken hauetan mila biztanletik 37 mugitzen baitira batez beste.

Extremadura da salbuespena; beste erkidego guztien kasuan, Euskal AEra datozen pertsonak gehiago dira hemendik haietara doazenak baino.

Euskal AEko emigratzaileentzat, honako erkidego hauek dira erakargarrienak, hurrenkera honetan: Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria, Katalunia, Nafarroa eta Andaluzia. Seion artean gure erkidegotik besteetara joaten direnen %63 jasotzen dute.

Atzerriko nazionalitatea duten immigratzaileak, 2012. urtean, 14.883 pertsona izan ziren, aurreko urtean baino %29 gutxiago, 5.890 pertsona gutxiago. 7.300 pertsona beste erkidegoetatik etorri zaizkigu, batez ere Katalunia, Madril, Valentzia, Andaluzia eta Gaztela eta Leondik. Gainerako 7.583 atzerritarrak zuzenean atzeritik etorri ziren (2011n baino %32 gutxiago).

6.346 atzerritarrek utzi zuten gure erkidegoa. Emigratzaileen ia hirutik bat (%31) atzerritarrak dira; haien %63 beste erkidego batera joango dira.

Emigratzaileen batez besteko adina, 35,1 urte, handiagoa da etorkinena (32,8) baino. Bai etortzen direnen, bai joaten direnen kasuan, gizonak (%52) gehixeago dira emakumeak (%48) baino.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko emigrazio-mugimenduei buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko emigrazio-mugimenduei buruzko datu-bankua